

# Romo Kultur Etxea



## Eraikineko egitura jasotzen hasia da

Gaur egun jadanik bukatu, amaitu dira erabat sotoa hondeatzeko, zimendatzeko eta husteko lan guztiak. Lan horiek guztiak amaitu ostean 2013. urtearen amaieran eraikinaren egitura egikaritzen hasi ziren. Sotoko zutabeak eta tarteko solairua amaituta daude dagoeneko, eta beheko solairuko maila ere amaitu berri dute. Hemendik aurrera eraikinaren egitura kaleko mailaren gainetik jasoko da maila bakoitzaren zutabeak eta forjaketak txandaka egikaritzuz bata bestearen atzetik harik eta amaitzen diren arte.

## Ba al zenekien...

...548,2 m<sup>2</sup> direla Nagusien Etxeko bazkideek gaur egun dituztenak eta RKEren eraikin berriaren haiek, ez beste inork, 1.148,3m<sup>2</sup> erabili ahal izango dituztela, partitzeko diren 4.000 metroz gainera? Eta 516 lagun direla, guztira, Getxoko udal Euskaltegian ikasten ari direnak?. Pertsona horiek guztiek instalazio handiago eta hobeto edukiko dituzte RKEn eta zentro soziokultural berriaren izango diren beste ekipamendu batzuk ere erabili ahal izango dituzte.

## Ba al zenekien...

... gaur egun dagoen etxebizitzaren eraikina eta etorkizuneko Romo Kultur Etxea bereiziko dituen distantzia 8,50 metrokoa izango dela Aurrezki Kutxa kalean, eta 8,80 metrokoa Ezequiel Aguirre kalean?  
Ba al zenekien lursailaren geometria ikusita gutxienezko distantzia 7,60 metrokoa izango dela eta eraikinaren erdigunean dagoela? Ba zenekien distantzia hori gutxienez Basagoiti etorbideko 17 guneetako bakoitza baino handiagoa dela?

## BANAKETA SOLAIRUZ SOLAIRU

5.	• Entsegu-gelak (koruak, dantzak, rock,...). • Grabazio eta entzuketak-gelak. • Biltegia.
4.	• Euskaltegia (ikasgelak, zuzendaritzako bulegoak, irakasle-gela, ordenagailu-gela, ...).
3.	• Nagusien Etxea (gimnasioa, tb- eta irakurketa-gelak, batzar-aretoak, ile-apaindegia, podologia-kontsultategia, masajista, bainugelak, ...) • Erabilera anitzeko aretoak, Nagusien Etxea eta elkarte eta erakunderentzat (bilerak, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, proiektzioak,...).
2.	• Bebeteka. *Haur eta Gazte Liburutegia. • Erabilera anitzeko aretoak elkarte eta erakunderentzat (bilerak, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, proiektzioak,...). • Egoteko ororen gunea. • Administrazio-eremua.
1.	• Liburutegia eta bulegoak. • Hemeroteka. • Ikasketa-gelak.
ETXABEA	• Informazio Gunea. • Erakusketa-gela. • Kafetegia eta jangela. • Gaztelekua
SOTOA	• Erabilera anitzeko Aretoa (kontzertuak, antzezlan txikiak, proiektzioak, hitzaldiak, dantzak, ...). • Zenbait azpiegitura (aldagelak, biltegia, gela teknikoak, ...).

## Ehun metroko inguruan 8 eraikin altuagoak

100 metroko inguruan, gaur egun, Romo Kultur Etxe berria baino altuagoak diren zortzi etxe daude guztira. Horrez gainera, ekipamendu berri hau behin amaituta, Santa Eugeniako plaza inguratzen duten eraikinetan altuenak, bi etxe izango dira aurrerantzean ere: Ezequiel Aguirre kaleko 1 zenbakikoa eta Kresaltzuko - Ezequiel Aguirreko kantoian. Ezequiel Aguirreko etxeak behekoa eta beste 7 solairu ditu, 27,45 metroko garaiera, eta Kresaltzukoak behekoa eta beste 6 solairu, 26,45 metroko altuera.

## PROZESU PARTE-HARTZAILEA

**BATZARRAK** erakunde soziokulturalekin erantzun beharreko betebeharrak finkatzeko.

**AHOLKU BATZORDEA**ren sorrera proiektu onena aukeratzeko Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek hartutako arkitekto eta adituek osatua.

**UDALBATZA**ren gehiengoak onartu zuen 2010eko apirilean oinarritzko proiektua

- 7 ERAKUSKETA**
- > GETXOLANDIA
  - > Gobela KIROLDEGIA
  - > AlgortaKO MERKATUA
  - > Gernika PARKEA
  - > Aldapa PARKEA
  - > Borobia PARKEA
  - > Santa Eugeniako antzinako eskolak

**6 INFORMAZIO-JARDUNALDI**, horietako hiru erakunde soziokulturalekin eta beste hiru auzotarrekin Antzina-ko Eskoletan, Euskaltegian atondutako lokaletan, Areetako Elkartegian eta Udaltzaingoaren egoitzan.

**6 BATZAR NAGUSIEN ETXEKO ZUZENDARITZA BATZORDE ETA BILTZARRAREKIN** RKE aurkeztu eta horren inguruko proiektura bildutako ekarpenak jasotzeko.

**14 OHAR ETA MEZU** Romoko auzotarrei zuzenduak

**7 Prentsaurreko eta 15 prentsa ohar**

**TOPAKETA** eta **BATZAR** pertsonalak auzotarrekin eta saltokietako jabe eta osalariekin iradokizunei kasu egin eta azalpenak emateko

**AKI**-ren udal **ARETA-ZERBITZUA** eta iradokizun-ontzia erakusketetan



## Iritziak

### Romoko auzo-elkartea

Romoko auzo-elkartek Romo Kultur Etxerako hiru solairuko (ez bost) eraikin bat sortzeko proposamena egin du, gehi beheko solairua eta sotoa; izan ere, Romo eta Areetako biztanleen egungo nahiz etorkizuneko beharrak bete ditzakeela iritzi du. Elkarteak euskaltegia eta Nagusien Etxea kentzearen alde dago, bi zerbitzu horiek egun hartzen dituzten eraikinak berritzearen alde. Corten altzairuzko fatxadaren aurka agertzen da ere, proiektua garestitzen duela uste baitu. Elkartean bere proposamena herritarrei erakutsiko die eta ez du mobilizazioak egitea baztertzeko herritarrek babesa ematen badite.

### Areetako Ondarreta Abesbatza

Ondarreta Abesbatza 1967an sortu zen Mesedeetako Abesbatza izenarekin, 1972an egungo izena hartu zuen, eta azken horrek Romo Kultur Etxeko proiektua oso garrantzitsutzat jotzen du udalerrirako. Areeta-Romoko auzorako bereziki; izan ere, Andres Isasi Musika Eskolaren osagarri izanik, auzo horietako kultur elkarteek funtsezko guneak izan ditzaten ekarriko du eta, horrenbestez, beren jarduerak baldintza egokietan eta kosturik gabe garatu ahal izango dute. Arrazoi hori dela eta, obrak amaitzeko irrikaz gaude, ilusio handiz horren zain gaude etapa berri honi ekin ahal izateko eta, zalantzarik gabe, udalerriko kultur bizitzaren gehiagoko bultzatuko duena.

#### Entseatzeko lekua

Ondarretako entseatzeko lehen egoitza Areetako Udal Eskola zaharrak ziren, 1970. urtetik 1986ra hain zuzen; handik lehengo Mesedeetako Kultur Etxera pasa zen 2010eko otsaila arte, eta bi kasuetan areto horiek Getxoko Udalak utzi zizkien. 2010eko martxotik aurrera dago Urriaga Musika Kontserbatorio Pribatuko erdisotoan, Santa Anan. Jatorriz klinika bat zen leku horrek ez ditu kide askok osatutako talde baterako baldintza egokienak biltzen, nahiz eta bere eginkizuna betetzen duen. Bestalde, Udalak laguntza eman arren, ez du kostu guztia betetzen, eta, beraz, zama ekonomikoa handia da.